

ANALISIA



Elektroien autobideak



Unai Brea

@unaibrea

ARGAZKIA: GUEÑES-ITSASO AUTOPISTA
ELEKTRIKOAREN AURKAKO KOORDINADORA

Ez elektroia bezain azkar, baina abiada handian doaz Euskal Herrian argindarren garraiorako bi azpiegitura handi eraikitzeke planak. Batak, Gueñes (Bizkaia) eta Itsaso (Gipuzkoa) lotuko dituen 72 kilometroko goi tentsioko lineak, oraindik orain lortu du Espainiako Gobernuaren baime-na, zeharkatuko dituen udalen gehiengoak aurka azaldu den arren.

Beste proiektua handinahiagoa da, edo modako terminologian nahiago bazuze, faraonikoagoa, gure begiei ezkutatuko badiete ere: Bizkaiko Gatika herri txikiaren eta Bordele iparraldean dagoen Cubnezais-en arteko kable laukoitza, 370 kilometroko luzerakoa, horietatik 280 itsaspekoak eta hamar euskal lurretan, zehazkiago lurpean. Alegazioak aurkezteko fasean dago, baina harritzekoa litzateke egitasmoak aurrera ez egitea. 2025ean indarrean egotea da asmoa.

Herrialdeen arteko konexio elektrikoak indartzeak hainbat abantaila dakar, zabaldu dute proiektuon sustatzailerak, erakunde publikoak barne: energia trukateta erraztea beharrezkoa dagoenean –horrela, esaterako, eskualde batek une batean itzalaldia jasatea eragotziko litza-

teke-, eta iturri berriztagarrietatik datorren ekoizpenari aterabide gehiago ematea, eguraldiaren apetari lotuta egonik alferrik gal baitaiteke bestela.

Bestelako ikuspegia dute autobide elektriko direlakoan aurka han-hemenka antolatuz joan diren mugimendu herritarrek. Goi tentsioko linea erraldoiek paisaiari eta ekosistemari egiten dioten kaltea gogorarazi, eta hurbil bizi diren herritarren osasunerako arriskua azpimarratu dute, oso azpiegitura garestiak direla ahaztu gabe.

Kontua da ea prezioa ordaintzea merezi ote duen. Alegia, benetakoak ote diren elektrizitatea urrunera garraiatzeko azpiegituren alde ematen diren argudioak, edo besterik gabe negozio handi bat besterik ez ote den hau guztiau, Red Eléctrica de España konpainiako EAEko ordezkariak berriki elkarrizketa batean aitortu bezala. Horren aurrean, proiektuon kontra daudenek herritarren egiazko beharretara egokitutako energia ekoizpen eredu deszentralizatua aldarrikatzen dute, garraio zirkuitu laburrez hornitua. Argindarraren portzentaje handi bat bidean galtzea eragotziko luke horrek, ingurumenari kalte txikiagoa egiteaz gain.

EKONOMIAREN TALAIAN

Soldata igoera miserableak



Juan Mari Arregi

Gobernatzen dutenek soldata onak dituzte, dietak, luxuzko pentsioak... Eta hara non datoz orain esatera, krisi urteen ondoren soldatak mugitu behar direla kontsumoa hobetzeko. Lanbide arteko gutxieneko soldata (LGS) 2018an %4 igotzea proposatu dute; orain 706 euroan dago. Hau da, 28 euro gehiago! Espainiako Estatuko milaka langilek –Hego Euskal Herrikoak ere bai– “bizi” beharko dute 736 euro horiekin. Pentsioak, laugarren urtez jarraian, %0,25 igoko dira, beraz milioika pentsionistek hilean bizpahiru euro gehiago jasoko dute. Eta hauteskunde orokorrak datozenez, PPren Gobernuak “2019 eta 2020rako igoera garrantzitsuak” iragarri ditu.

Hori da dagoena. Gobernatzen dutenek eta gobernuaren atzean daudenek (bankuak, multinazional handiak, IBEX-eko enpresak...) soldata eta mozkin milioidunak pilatzen dituzte, eta lotsarik gabe onartzen dituzte besteoi soldata eta pentsioak igotzeko kondartxo horiek. Eta hori horrela da, funtsean euren burua saltzen duten eta gobernutik jasotzen dituzten subentzioekin oso eskertuta dauden sindikatu batzuk daudelako. CCOO eta UGT negoziatzen ari dira patronalarekin eta Espainiako Gobernuarekin, eta diotenez LGSa 886 eurora igotzea eskatuko dute, asko balitz gisan! Eta Gobernuak bere proposamenari eusten badio, orduan zer?

Bai Espainiako Gobernuak kideek, bai patronalak, bankuek, multinazionalak eta enpresa handiek, hala nola liberatu sindikalek, urtebete –bai, bakarrik urtebete– pasa beharko lukete soldata miserable horiekin, 736 euro gaitutuko ez dituen LGSarekin. Kapitalismoak bidea libre dauka eta ez ezker politikoak ezta sindikatuek ere ez dute ezer egiten aurrera egiteko. Sistemarekin paktatzen dute, eta horrela doakigu.